

# 75 urteko argazki baten bi aldeak



**NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA**

**A**uschwitz-Birkenau (Polonia), 1945eko urtarrilaren 27a. Armada Gorria kontzentrazio esparrura iritsi zen. Inguruan soldadu alemaniarrik ez zebilela egiaztatu ondoren, useltzen ari ziren 600 bat gorpu topatu zituzten. Eta arantzadun alanbrearen atzean bizirik zeuden preso batzuk ere ikusi zituzten. Alemaniarrak, ibiltzeko gai ziren presoekin batera, alde eginak ziren, gerora Heriotzaren Martxa esango zitzaiona abiatuta. 7.000 preso inguru utzi zituzten esparruan.

Sobietar soldaduekin batera, Alexander Vorontsov argazkilaria ere esparruan zen egun hartan. Hark kameran jasotakoa barruan grabatuta geratuko zitzairen sobietar soldaduei. Ivan Martynushkin-ek 21 urte zituen bere unitatea Auschwitzera iritsi zenean. Gerrak aurrez bere herrian egindako triskantzen lekuko izanagatik, esparruan topatutakoa ez zuten espero. Badakigu ordurako aliatuek bazekitela esparruetan zer gertatzen zen. “Goi kargu militarrek agian izango zuten esparruaren berri”, esan zuen Martynushkin-ek gerora, “baina guk ezertxo ere ez genekien. Gogorra zen haiei begiratzea. Aurpegiak ditut gogoan, eta oinaze izugarria adierazten zuten begiak”.

Besteak beste, hesiaz bestaldeko hamahiru haurren aurpegiak, begiak eta oinazea jaso zituen Vorontsoz argazkilaria argazki batean. Argazkiaren erdialdean




ALEXANDER VORONTSOV

10 urteko neskato ilehori bat agertzen da. Marta Weiss judu eslovakiarra da eta ezkerrean Eva ahizpa dauka. Weisstarren itxura “ariarrari” esker, eta dokumentazio faltsua lagun, familia ez zuten 1944ko azarora arte atzeman eta Auschwitzera bidali.

Marta Josef Mengelaren eskutan utzi zuten orduan. Injekzioak sartzen zizkioten: “Batzuek guztiz zorabiatuta uzten ninduten eta beste batzuek, minez iraulkatzen”. Mengelek, besteak beste, judutarren begi ilunak argitzeko esperimentuak egin zituen. Martaren hitzetan, “zorte onekoak berehala hiltzen ziren, baina gainerakoak agonia luzea izaten zuten, itsututa eta minak janda. Eskerrak begi berdeak ditudan”.

Sobietarrak iritsi zirenean, Martak 17 kilo besterik ez zuen pisatzen. Eta Eva ahizparen egoera are larriagoa zen: tuberkulosiak, tifusak eta disenteriak jota zegoen. Eta ziurrenik horrek salbatu zituen biak, Martak ahizparekin gertzea erabaki zuelako, heriotza-tasa askoz handiagoa izan zelako Heriotzaren Martxa abiarazi zituzten 58.000 presoaren artean, esparruan geratu zirenen artean baino.

“Urtarrilaren 27a bigarren urtebetetzat daukat. Egun hartan, soldaduak sumatu genituen urrutira, gero eta hurbilago. Haien uniformeetan izar gorriak ikusi nituenean konturatu nintzen amesgaiztoa amaitu zela, aske nintzela”. ●



## Greensboroko lauak

**D**uela 60 urte, 1960ko otsailaren 1ean, Joseph McNeil, Franklin McCain, William Smith eta Clarence Henderson unibertsitateko ikasle beltzak Greensboroko (Ipar Karolina, AEBak) Woolworth kafetegi segregatuko barrako eserleketan eseri ziren, debekatuta izan arren. Aurrez ondo prestatutako ekintza zen, eta prentsari ere deitu zioten. Ezkerreko argazkia eta antzeko ekintzak berehala zabaldu ziren. Bihara-

munean, bezperako lauei beste 20 ikasle gehitu zitzaizkien, eta egun gutxiren buruan ekintzaile askok kalean geratu behar izan zuten, kafetegian ezin sartuta. Uda horretan, Woolwortheko barran beltzei zerbitzua ematen hasi ziren, baita AEBetako hegoaldeko beste hainbat saltoki eta tabernetan ere. Eskubide zibilen aldeko borrokaren lehen mugarrietako izan zen, Rosa Parks autobusean eseri eta lau urtera. ●